

UNIBERTSITATEKO KLAUSTROKO HAUTESKUNDEAK

2. FASEA

KANDIDATURAK AURKEZTEA	2
BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEEN EGINKIZUNA KANDIDATUREN AURREAN.....	4
HAUTESKUNDE MAHAI ELEKTRONIKOA	4
HAUTESKUNDE KANPAINA	5
I. ERANSKINA	6

KANDIDATURAK AURKEZTEA

Klaustroko ordezkariak hautatzeko kandidaturak kolektiboak, itxiak eta ordenatuak izango dira, eta **azaroaren 8ko 12:00ak arte** aurkeztu ahal izango dira kasuan kasuko barrutiko hauteskunde batzordeari zuzenduak. Giza zientzien titulazioan Hauteskunde Batzorde Nagusiko presidenteari zuzenduak izango dira. Hautagaitzak aurkeztuak izango dira idezkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus korreo elektronikoz edo UPV/EHUko erregistro elektronikoen bidez <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> helbidea erabiliz, «Jasotzailea» atalean, Idazkaritza Nagusiko Zerbitzua/Servicio de Secretaria General aukeratuz. Adierazitako moduan ezin bada aurkeztu, salbuezpen moduan, hautagaitzak unibertsitateko erregistro-bulego laguntzaileetan aurkeztu ahal izango dira. Bestalde, kandidatek erregistroa aurkeztu ahal izango dira.

Kandidatura bakoitza hautagai guztiek sinatu beharko dute. Barrutiari esleitutako postuen laurdena bete beharko dute gutxienez, eta gutxienez bi hautagai izen behar dituzte beti. Edonola ere, zerrendan % 40 gutxienez emakumeak direla bermatuko da. Era berean, hautagai zerrendako lehen bi pertsonetako bat gutxienez emakumea izango da.

Emakumeen presentzia aurreko paragrafoan adierazi den moduan bermatu ezin bada, hautagai zerrenda aurkeztearekin batera, baldintza hori betetzea eragotzen duten arrazoiak argudiatu beharko dira. Hauteskunde Batzordeak argudio horiek UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari igorriko dizkio, eta hark hautagai zerrenda horren onarpenari buruzko txosten lotesle bat igorriko du, aurkeztutako hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatu baino lehen. Aipatutako txosten hori jaso bitartean, eraginpeko hautagai zerrenda prozesutik kanpo geratuko da behin-behinean.

Behar diren izenak baino gutxiagoko kandidatura bat aurkeztuko balitz, edo hautagai guztiek sinatzeke aurkeztuko balitz, edo zerrendan % 40 gutxienez emakumeak direla bermatuko ez balitz, hauteskunde batzordeak kandidatura behin-behineko aldarrikatu beharko luke, baina honako baldintza honekin: **azaroaren 16ko 10:00etarako** (behin-behineko aldarrikapenaren kontrako inpugnazioak aurkezteko epea ixten denerako, alegia) akats hori zuzenduta ez badago, kandidatura hori behin betiko baztertuko dela.

Sinadurak **originalak izan behar dira**.

Kandidatura bakoitzean posta elektronikoko helbide bat adierazi beharko da, barrutiko hauteskunde batzordeak prozesu osoan erabil dezan dokumentazioa eskatzeko, informazioa bidaltzeko edo eskatu

beharrekoak eskatzeko, prozesua arinago eta eraginkorragoa izan dadin eta hautagaiek lehenbailehen izan dezaten hauteskunde batzordearen erabakien berri.

Azalpen hauei erantsita (I. eranskina) dago kandidatura eredu bat. Gomendatzen dugu eredu hori erabiltzea.

Behin-behineko aldarrikapena denean, barrutiko hauteskunde batzordeak jakinaren gainean jarri beharko du kandidaturako lehen sinatzailea, ikusitako akatsak zuzendu ditzan.

Kandidaturen behin-behineko aldarrikapenaren kontrako inpugnazioak
idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko barrutiko hauteskunde batzordeari zuzenduta, **2023ko azaroaren 16ko 10:00ak baino lehen.**

Hauteskunde barrutiak:

-Irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreentzat eta graduiko ikasleentzat hauteskunde barrutia ikastegia da.

- Master eta Doktorego ikasleen barrutia doktorego eskola da, eta hautagai zerrenda aurkez dezakete master eta doktorego ikasleen erroldetan agertzen diren pertsona guztiek (ikasketa horiek egiten diren ikastegietan argitara emandako erroldetan, alegia), ikasketak egiten ari diren ikastegia edo campusa edozein delarik ere.

-Giza Zientzietako titulazioko (Esperientzia Gelak) ikasleen barrutia ere UPV/EHU da, eta hautagai zerrenda aurkez dezakete ikasketa horietako ikasleen erroldan agertzen diren pertsona guztiek (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ikastegietan argitara emandako erroldetan, alegia), ikasketak egiten ari diren campusa edozein delarik ere.

-Irakasle iraunkor ez-doktoreen eta irakasle ez-iraunkor doktoreen, gainerako irakasle-ikertzaileen eta Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak hauteskunde barrutia campusa da.

Beraz, kandidatura aurkez dezakete beren taldeko eta campuseko erroldan dauden pertsona guztiek, nahiz eta guztiak ikastegi batekoak izan. Edozelan ere, kandidatura bateko pertsonak ikastegi desberdinetakoak izan arren, nahitaez izan beharko dira campus berekoak.

BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEEN EGINKIZUNA KANDIDATUREN AURREAN

Barrutiko hauteskunde batzordeek egiaztatu beharko dute ea kandidatura bakoitzeko hautagai guztiek hauteskundeetara aurkezteko behar diren baldintza guztiak betetzen dituzten.

Barrutiko hauteskunde batzorde batek ikastegian edo campusean ikusten badu kandidatura bateko kide batek edo gehiagok ez dituztela betetzen baldintzak akatsak zuzentzeko epea zabalduko da kandidatura horrentzat azaroaren 16ko, 10:00ak arte, egun horretan behin betiko hautagaitzak aldarrikatzen baitira.

Ikastegietako eta campusetako barrutiko hauteskunde batzordeek toki egokietan argitaratuko dituzte kandidaturak, eta barruti bakoitzari buruzko berezitasunak.

Behin-behineko aldarrikapena eginik, inpugnazioak aurkeztu ahal izango dira hurrengo helbide elektronikoan: idezkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus **2019ko azaroaren 16ko 10:00ak arte**. Hauteskunde batzorde nagusiak inpugnazioak ebatzi, hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatu eta agindua emango du kasuan kasuko ikastegiko eta campusetako iragarki oholetan argitaratzeko.

HAUTESKUNDE MAHAI ELEKTRONIKOA

Bozketa elektronikoa izango denez, UPV/EHUko boto elektronikoaren araudiaren 2.2 artikulua araber:

«2.- Hauteskunde Batzorde Orokorreko kideekin eratuko da hauteskunde mahai elektronikoa, bosgarren xedapen gehigarriaren kasuan izan ezik. Eratze saioan egon ahal izango dira, halaber, horretarako izendatutako ikuskatzaileak eta boto elektronikoa zaintzeaz arduratuko den babes taldea ere. Mahaiko buruaren erabakiz, bozketa hasi baino lehenago egingo du bilera, aurrerapen nahikoarekin.

Hauteskunde mahaia balioz eratzeko beharrezkoa izango da kideen erdiak bertan egotea, eta ezinbestekoa izango da horitako bat mahaiko burua izatea.

«Hauteskunde mahai elektronikoa eratzean ez da aplikagarria izango UPV/EHUren Hauteskunde Erregimen Orokorreko Araudiaren 9.8 artikuluan bildutako debekua, errektorea aukeratzeko prozeduran izan ezik.»

Hauteskunde mahaietarako ikuskariak izendatzeko eskaera.

Bukatzeko, hauteskunde mahaietarako ikuskariak izendatzeko eskaera hurrengo helbide elektronikan egin daiteke: idezkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus **azaroaren 17ko 12:00ak arte** egin diezaiokete

kandidaturek hauteskunde batzorde nagusiari. Eskarian zehaztuta egon beharko dira proposatu nahi diren ikuskarien izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta horrekin batera interesdunek sinatutako onarpen idatziak (ikuskaria edo ordezkoa izateko) aurkeztu beharko dira.

Idazkaritza Nagusiak izendapenak egingo ditu eta horien berri berehala emango dio Hauteskunde Batzorde Orokorrari.

Ikuskariak **ezingo dira izan hauteskunde mahai elektronikoko kide.**

HAUTESKUNDE KANPAINA

Barrutiko hauteskunde batzordeak bilera bat egingo du kandidaturekin, hauteskunde kanpainarako egutegia adosteko. Hauteskundeetako propaganda ekitaldiak behin betiko kandidaturak aldarrikatu eta gero hasiko dira (**azaroaren 16an**), eta botoa emateko eguna baino 24 ordu lehenago bukatuko dira. Garrantzitsua da argi uztea kanpaina bozketaren bezperan amaituko dela, hau da, **azaroaren 22an** ezingo dela propaganda ekitaldirik egin.

Klaustroaren Funtzionamenduari buruzko arautegiaren arabera ikasleen kandidatura bakoitzak eskolako ordubete izango du ikastegi bakoitzean programa azaltzeko. Ordu horretan eten egingo dira eskolak, eta leku egokia utziko zaie kandidaturei zeregin hori betetzeko. Irakasle eta ikertzaileen kandidaturek ere tarte hori bera erabili ahal izango dute kanpaina egiteko. Teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen kandidaturek ordubete izango dute lan egunaren barruan, ordaindua eta errekuperatu behar ez dena, ikastegi, zerbitzu edo unitate bakoitzean.

Barrutiko hauteskunde batzordeek erabakiko dute ordubetea nola antolatu; izan ere, aukera bat izan daiteke ordu hori tarteetan banatzea, irakasgai batzuen eskola ordu osoan eragin beharrean.

ERANSKINA I

UNIBERTSITATEKO KLAUSTORAKO KANDIDATURA EREDUA

•	IRAKASLE	ETA	IKERTZAILE	IRAUNKOR	DOKTOREAK.	IRASTEGIA:
.....						
•	IRAKASLE	IRAUNKOR	EZ-DOKTOREAK	ETA	IRAKASLE	EZ-IRAUNKOR DOKTOREAK
CAMPUSA:						
•	GAINERAKO	IRAKASLE	ETA	IKERTZAILEAK.	CAMPUSA:	
.....						
•	IKASLEAK. IRASTEGIA:					
•	GRADUONDOKO IKASLEAK:					
•	ESPERIENTZIA GELETAKO IKASLEAK					
•	TEKAZELEkoak. CAMPUSA:					

KANDIDATURAREN IZENA (<i>aukeran</i>)		
LOGOA/ANAGRAMA (<i>aukeran</i>)		
ABIZENAK ETA IZENA	NAN	SINADURA (jatorrizkoa)
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		

Zerrendan % 40 gutxienez emakumeak direla bermatuko da. Era berean, hautagai zerrendako lehen bi pertsonetako bat gutxienez emakumea izango da. Orria letra larritz, argi eta garbi bete behar da.

Sinadurak jatorrizkoak izan behar dira.

POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA: Helbide bidaliko ditu Hauteskunde Batzordeak jakinarazpenak

Tokia: Eguna:koarena